

antzerki bat etab....

Euskaldun guzian laguntza ta begirunea merezi duan aldizkaria dugu au. Zioak guziok dakizkitzute. Zorion ta eskerronik biozkorrena Zaitegi Jaunari oztopo guzien gainetik bere eginkizunei irmo darraikielako. Urte Berri zoriontsuena opa diogu berari eta bere aldizkari eder oni eta beraren idazleei!

" Y A K I N "

" N I N I ... "

Agertu zan konejutxo familien bigarren ipuia: " Nini, konejutxo argia ". Benetako egarria dago euskal familietan umetxoei euskal-irakurgaiak emateko. " Pipo " liburuxkaren salerak azaltzen du ederki. Arrapazka erosi da ori.

Presentazioa ere egoki egokia daukate. Txukin txukib irarrita; irudiak ere txanbeliñak, kolore bixi bixitan. Orrelako asko bagenitu, gure aurtxoei beren jolasak euskeraz irakasteko! Utsune aundia betetzen dute benetan Xabin Berasaluzek euskeratutako ipuñtxo polit auk. Belaxe agertuko da irugarrena ere.

Ekarri olako asko gure umetxoentzako!

P.M.

" E G A N "

Azkena atera zana eldu zitzaigun beti bezela iakingarri. Beti noiz elduko zai gauzkan aldizkaria dugu au ere. Azkenaren zai gaude aspalditik, ots, Gabonaldikoaren zai. Geiagotan ezin al lezakete atera aldizkari eder au? Atsegiñez jasoko genuke maizago.

Urte Berri zoriontsuena opa diogu aldizkari oni, bere zuzendari, idazle ta irakurleei. Ekin etaYarrai!
YAKIN